

Abenduaren 16ko 79/2008 FORU DEKRETUA, Zergen Foru Arau Orokorrean balioen egiaztapenerako aurreikusita dagoen prozedura garatzen duena.

(2008-12-23ko GAO)

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 56.3 artikuluan xedatzen duenez, Zerga Administrazioak foru arau horren 128. eta 129. artikuluetan aurreikusten den prozedura dela medio egiaztatuko ditu balioak, betiere prozeduraren xede bakarra egiaztapen hori egitea denean edo, bestela, egiaztapena III. tituluan arautzen diren prozeduretako baten barruan eta haren jarduketa zehatz modura burutzen denean. Edozein kasutan ere, artikulua horietan xedatutakoa aplikatuko da.

Era berean, artikulua horrek 2. apartatuan dio perituen tasazio kontrajarria erabili ahal izango dela 56. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako bitartekoen aplikaziotik ateratzen diren balorazioak berretsi edo zuzentzeko.

Balioen egiaztapenari buruz 128. eta 129. artikuluetan ageri den erregulazio zehatza eragotzi gabe, perituen tasazio kontrajarriari dagokionez 129. artikuluan 3. apartatuak dio hirugarren perituak legeztatuak elkarrekin, elkarrekin edo korporazio profesionaleko kolegiatuen edo elkarrekin-kideen artean izendatzeko prozedura eta euren eginkizunak betetzeko baldintzak erregelamenduz garatu beharko direla, kasu bakoitzean egoki irizten den eran eta baloratu beharreko ondasun edo eskubideen izaera kontuan hartuta. Alabaina, baloratu beharreko ondasun edo eskubideen izaera dela-eta ez badago elkarrekin, elkarrekin edo korporazio profesional eskudunik edo inongo profesionalik ez badago prest hirugarren peritu gisa jarduteko, tasazio sozietate bat izendatuko da, dagokion erregistro ofizial batean inskribatua behar duena. Erregelamenduzko garapen hori egiteaz gain, beharrezkoa da prozeduraren zenbait puntutan sakontzea haren emaitza hobetzeko.

Hori guztia dela eta, foru dekretu hau onartzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 128. eta 129. artikuluetan balioen egiaztapenerako aurreikusita dagoen prozedura garatzeko.

Aipatutako 2/2005 Foru Arauak amaierako hamazortzigarren xedapenean jasotzen duenez, Foru Aldundiak behar diren xedapen guztiak eman ditzake foru arau hori garatu eta aplikatzeko.

Horiek horrela, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT

I. kapitulua

Arau orokorrak

1. artikulua. Balioen egiaztapena.

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak (aurrerantzean Zergen Foru Arau Orokorra) 56. artikuluan jasotakoaren arabera, Zerga Administrazioak errenten, produktuen, ondasunen eta zerga obligazioan eragina duten gainerako elementuen balioa egiaztatu dezake, zergapekoak ondoko balio hauetako bat aitortu duenean izan ezik:

a) Zerga Administrazioak horretarako jakinarazi dion balioa, jakinarazpena honako hau kontuan hartuta egin bada: Zergen Foru Arau Orokorraren 85. artikuluan jasotakoa, eta urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuak, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentzia hartuta zehazteko prozedura onartzekoak, II. tituluan esandakoa.

b) Zergen Foru Arau Orokorraren 56.1 artikuluan aurreikusitako bideetako bat aplikatuta Administrazio jarduleak argitaratutako balioak.

2. Foru dekretu honetan xedatutakoa zerga bakoitzaren araudian ezarritakoaren kalterik gabe ulertuko da.

2. artikulua. Balioak egiaztatze bideak.

1. Zergen Foru Arau Orokorraren 56.1.b) artikuluan aipatutako balorazio bidea aplikatu ahal izateko (zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentziatzen hartuta), ezinbestekoa izango da Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak aldeztu aurretik onartu eta argitaratzea, foru aginduz bidez, koefiziente biderkatzaileak kalkulatzeko erabilitako metodologia, metodologia horretatik ateratzen diren koefizienteak eta haien balio epea.

2. Balio egiaztapena merkatuko batez besteko prezioen arabera egiten denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabaki dezake foru aginduz onartu eta argitaratzea batez besteko prezio horiek ondasun motaren arabera kalkulatzeko erabilitako sistema edo metodologia, eta hortik ateratako balioak.

3. Balioak egiaztatze Administrazio perituaren irizpena erabiltzen denean, perituak titulazio nahikoa izan beharko du, baloratu beharreko ondasun motari egokitu.

Baloratu beharrekoa banakako ondasun edo eskubide bat denean, jasota utziko dira araudi aplikagarriaren arabera ondasun edo eskubidearen balioa kalkulatzeko aintzat hartu behar diren ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoak.

4. Zergen Foru Arau Orokorraren 56.1.h) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Zerga Administrazioak posible du eskualdatutako ondasunen balioa, zerga obligazioa dakarrena, kalkulatzeko ondasun berberaren beste eskualdaketa batzuetan aitortutako prezio edo balioa kontuan hartuta, betiere balio horren funtsezko zirkunstantzia fisiko, juridiko eta ekonomikoak aldatu ez badira. Ezinbesteko baldintza da eskualdaketa horiek urtebeteko epean eginak izatea, balio hori aintzat hartzen den zergaren sortzapen egunetik kontatzen hasita.

3. artikulua. Balioak egiaztatzeko jarduketak.

1. Balio egiaztapena jarduketa zehatz modura ere burutu daiteke Zergen Foru Arau Orokorrak III. tituluko III. eta IV. kapituluetan tributuen aplikaziorako jasotzen dituen prozeduretako baten barruan.

2. Balio egiaztapena Zergen Foru Arau Orokorraren III. tituluaren araututako beste prozedura baten barruan egiten bada eta jarduten duena ez bada prozedura tramitatzen duen organoa, sorburu duen prozedurari lotuko zaio balio egiaztatua.

3. Balio egiaztapena aurreko 1. apartatuan jasotakoaren arabera egiten denean, Zergen Foru Arau Orokorraren 128. artikulua eta foru dekretu honek xedatutakoa aplikatuko da, salbu eta ebazteko gehienezko epeari dagokiona, epe hori tramitatzen den prozedurarena izango baita.

Balioak egiaztatzeko jarduketak ikuskarpen prozedura baten barruan egiten direnean, Zergen Foru Arau Orokorrak eta Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduak ikuskaritzako organoei aitortutako ahalmenak izango ditu Zerga Administrazioak.

4. Balioak egiaztatzeko prozedura zeinahi dela ere, zergapekoek eskubidea izango dute perituen tasazio kontrajarria sustatzeko, Zergen Foru Arau Orokorraren 129. artikuluan eta foru dekretu honetan esandakoari jarraikiz.

5. Errenten, produktuen, ondasunen edo zerga obligazioan eragina duten elementuen balioa zuzenean foru arau, lege edo erregelamendu batetik datorrenean, egiten diren jarduketak ez dira hartuko balioak egiaztatzeko jarduketatzat.

II. kapitula

Balioak egiaztatzeko prozedura

4. artikulua. Balioak egiaztatzeko prozedura.

1. Prozedura honetan, Zerga Administrazioak administrazioaren esku dauden datuak nahiz zergapekoek beren aitortapenean adierazitakoak azter ditzake. Era berean, aurkezten edo propio errekeritzen diren frogagiriak azter ditzake, eta balorazioa egiteko beharrezkoa den informazioa eskatu diezaieke zergapekoari nahiz hirugarrenei.

Orobat, baloratu beharreko ondasun eta eskubideen azterketa fisiko eta dokumentala egin dezake Administrazioak. Horretarako, organo eskudunek Zergen Foru Arau Orokorraren 140. artikuluan jasota dauden ahalmenak izango dituzte.

2. Ondasunak singularrak direnean edo beren zirkunstantzia aipagarri guztiak iturri kontrastatuen bidez lortu ezin direnean, perituen irizpenean beharrezkoa izango da perituak pertsonalki ezagutzea berak baloratutako ondasuna. Ondasunaren edukitzaileak ezagutza hori galarazteak berarekin ekarriko du Zerga Administrazioa beharkizun hori betetzetik salbuestea.

3. Zergen Foru Arau Orokorrak 56. artikuluan aipatzen dituen bideetako edozein erabiliz egindako balio egiaztapenetik ateratzen den balorazio proposamenak arrazoitua izan behar du.

Foru arau horren 99.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, balorazio proposamenak espresuki jasoko ditu araudi aplikagarria eta aplikazioaren xehetasunak.

Bereziki, honako alderdiak jasoko ditu:

a) Zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioen erreferentzia bidezko balioespenean, zehaztu beharko da zein izan den erreferentziatzat hartutako balioa eta zeintzuk balio hori kalkulatzeko erabilitako parametro, koefiziente eta gainerako kuantifikazio elementuak.

b) Merkatuko batez besteko prezioak erabiltzen badira, zehaztu beharko da nola egokitu diren kasu zehatzera merkatuko batez besteko prezioen azterketak eta kalkulu sistema.

c) Perituen irizpenetan, zehazki adierazi beharko da gertatzezko zein elementuk justifikatzen duten aitortutako balioa aldatzea, eta emandako balorazioa ere adieraziko da. Ondasun higiezinaren kasuan, espresuki zehaztu beharko da zein izan den aplikatutako oinarritzko modulu unitarioa, jatorria non duen eta nola kalkulatu den. Orobat, balio egiaztatua zehazteko kontuan hartutako zirkunstantzia aipagarri guztiak jaso beharko dira hala nola, azalera, antzinatasuna, edo beste batzuk, amaierako balioan duten eragina eta haien jatorria ere adieraziz.

4. Administrazioaren balorazioa gero egingo den behinbehineko likidazioaren oinarri gisa erabiliko da, baina horrek ez du eragotziko egiaztapen mugatuko prozedura bat edo ikuskapen prozedura bat hastea zerga obligazioaren beste elementuei dagokienez.

III. kapitulua

Perituen tasazio kontrajarria

5. artikulua. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura hastea eta tramitatzea.

1. Perituen tasazio kontrajarria eskatzen bada, eta balioa egiaztatzeke erabilitako bidea ez bada izan Administrazioako perituen irizpena, Administrazioako peritu batek egin beharko du balorazioa. Ondorio horietarako, organo eskudunak baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda bidaliko die zerbitzu teknikoei. 15 eguneko epean, haien izaerara egokitutako titulua duten langileek preziamendu orria egingo dute ale bikoitzez, egindako balorazioaren emaitza eta erabilitako irizpideak bertan adierazita.

Bakarrik ulertuko da perituen tasazio kontrajarria zergapekoek sustatzen dutela balorazioaren aurka egiteko arrazoiak kuantifikazioari buruzkoak baino ez direnean, hau da, oinarritzko modulu unitarioa, antzinatasunak dakarren balio galera edo kuantifikazioan aintzat hartutako gainerako zirkunstantzien inguruko koefiziente eta zifrak, non eta zergapekoak ez duen berariaz adierazten ez duela

perituen tasazio kontrajarririk sustatu nahi eta egintza administratiboa inpugnatu nahi duela.

2. Organo eskudunak aurreko apartatuan aipatutako balorazioa jakinaraziko dio zergapekoari, edo bestela, balio egiaztapena Administrazioako perituen irizpen bidez egin bada, espedientean dagoen balorazioa. Zergapekoari hamar eguneko epea emango zaio, balorazioa jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, peritua izenda dezan, kontuan izanik, betiere, perituaren titulazioak bat etorri behar duela baloratu beharreko ondasun eta eskubideen izaerarekin.

10 eguneko epea igaro eta zergapekoak periturik izendatu ez badu, ulertuko da atzera egiten duela perituen tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidean, eta prozedura amaitutzat emango da. Kasu horretan, egiten den likidazioak kontuan hartuko du hasierako likidazioaren oinarri gisa erabili den balio egiaztatua, eta ezin izango da beste tasazio kontrajarririk sustatu.

3. Behin peritua izendatuta, ondasun eta eskubideen zerrenda emango zaio zergapekoari, eta honek zerrenda jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, preziamendu orria egin beharko du, arrazoituta beti.

Hilabeteko epea igarotzen bada baloraziorik aurkeztu gabe, ulertuko da zergapekoak atzera egiten duela perituen tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidean, eta prozedura amaitutzat emango da. Kasu horretan, egiten den likidazioak kontuan hartuko du hasierako likidazioaren oinarri gisa erabili den balio egiaztatua, eta ezin izango da beste tasazio kontrajarririk sustatu.

4. Hirugarren perituak izendatze aldera, Ogasuneko zuzendari nagusiak, gutxienez, hiru urtean behin, eta urtarilaren barruan beti, hirugarren peritu gisa jarduteko prest dauden elkargokide edo bazkideen zerrenda igor dezaten eskatuko die legez aitortutako elkargo, elkarte edo korporazio profesionalei. Zozketa publikoz zerrenda bakoitzetik bat hautatu ondoren, hurrenkera korrelatiboan egingo dira izendapenak, baloratu beharreko ondasun edo eskubideen izaera kontutan izanik.

Baloratu beharreko ondasun edo eskubideen izaera dela-eta ez badago elkargo, elkarte edo korporazio profesional eskudunik edo inongo profesionalik ez badago prest hirugarren peritu gisa jarduteko, Espainiako Bankuari eskatuko zaio dagokion erregistro ofizialean inskribatutako tasazio sozietate bat izenda dezan.

5. Zergapekoaren perituaren ordainsariak zergapekoak ordainduko ditu. Hirugarren perituak egindako tasazioaren eta aitortutako balioaren arteko aldea, balio absolututan hartua, aitortutako balioaren %20koa baino handiagoa bada, zergapekoak ordainduko ditu hirugarren perituaren gastuak. Bestela, Administrazioaren kontura joango dira. Kasu horretan, zergapekoak eskubidea izango du ondorengo apartatuan aipatzen den gordailuagatik beharrezkoak izan diren gastuak berreskuratzeke, esate baterako, gordailua dela eta jasotako kredituengatik finantza entitate, notario eta erregistroei ordaindutakoak.

Hirugarren perituak exijitu dezake ezen, bere egitekoan hasi aurretik, eta 10 eguneko epean, bere ordainsarien zenbatekoa gordailatu dadila Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza Zerbitzuan. Zergapekoak gordailu hori ez egiteak berarekin ekarriko du Administrazioako perituak egindako balorazioa onartuta geratzea, bi balorazioen arteko diferentzia zeinahi dela ere.

Hirugarren perituak zenbateko hori aurrez hornitzea eskatzen badu, balorazioa egiten hasi baino baieztatu beharko zaio zergapekoak esandako epean egin duela gordailua.

Zerga Administrazioak ordainsari estandarizatuak ezar ditzake Zergen Foru Arau Orokorren 129.3 artikuluan eta foru dekretu honetan jasotakoari jarraikiz izendatu behar diren hirugarren perituentzat. Beharrezkoa izango da izendapena zozketaz hautatuko perituak onartzea. Izendapena onartzeak Administrazioak erabakitako ordainsariak onartzea ekarriko du.

6. Hirugarren perituak izendapena onartu ondoren, baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda eta aurreko perituen preziamendu orrien kopiak emango zaizkio. Hilabeteko epean, dokumentazio hori jaso ondorengo egunetik kontatzen hasita, aurreko balorazioetako batzuk berretsi edo beste batzuk egin beharko ditu, Zergen Foru Arau Orokorren 129.4 artikuluan jasotako mugak eragotzi gabe.

Hirugarren perituak behin balorazioa Zerga Administrazioari eman ondoren, zergapekoari jakinaraziko zaio, eta honek 15 eguneko epea izango du bere kontura doazen ordainsariak ordaindu izana justifikatzeko. Hala dagokionean, gordailuan utzitako ordainsariak erabiltzea baimenduko da.

Hirugarren perituak ez badu balorazioa egiten aurreko paragrafoan aipatutako epean, indarrrik gabe utzi daiteke bere izendapena, eta erantzukizunak exiji dakizkioke bere irizpena epe barruan ez emateagatik. Izendapena indarrrik gabe uzten bada, jakinarazpena bidaliko zaie hirugarren perituari eta zergapekoari, bere ordainsarien gordailuak liberatuko dira, halakorik bada, eta beste hirugarren peritu bat izendatuko da hurrenkera korrelatiboari jarraituta.

6. artikulua. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura amaitzea.

1. Modu hauetako batean amaituko da perituen tasazio kontrajarriaren prozedura:

- a) Hirugarren perituak egindako balorazioa Zerga Administrazioari emateagatik.
- b) Zergapekoak bere asmoan atzera egiteagatik aurreko artikuluko 2. eta 3. apartatuetan esandako eran.
- c) Hirugarren peritua izendatzea beharrezkoa ez izateagatik Zergen Foru Arau Orokorren 129.2 artikuluan jasotakoaren arabera.
- d) Foru dekretu honen 5.5 artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren ordainsarien gordailua egina ez izateagatik.
- e) Prozedura Zergen Foru Arau Orokorren 100.5 artikuluan jasotako eran iraungitzeagatik.

2. artikulua honetako 1.c) apartatuan aipatutako kasuan, egiten den likidazioak kontuan hartuko du zergapekoaren perituak ZFAOren 129.2 artikuluari jarraikiz egindako tasaziotik ateratzen den balorazioa, eta Zerga Administrazioak ezingo du beste balio egiaztapen bat egin ondasun edo eskubide berberen gainean.

3. artikulua honetako 1.d) apartatuan aipatutako kasuan, egingo den likidazioak Administrazioako perituaren balorazioa hartuko du kontuan, eta zergapekoak ezingo du berriro sustatu perituen tasazio kontrajarririk.

4. artikulua honetako 1.e) apartatuan aipatutako kasuan, egiten den likidazioak hasierako likidazioaren oinarri gisa erabili den balio egiaztatua hartuko du kontuan, eta ezin izango da beste tasazio kontrajarririk sustatu.

5. Prozedura bukatutakoan, Zerga Administrazio eskudunak honako hau egin beharko du hilabeteko epean: Oinarritzat hartu behar den balorazioaren likidazioa eta bidezkoak diren berandutza interesena jakinarazi edo, bestela, aurretik egindako balorazioa berretsi.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea ez betetzeak berarekin ekarri du berandutza interesik ez exijitzea epea bete ez denetik aurrera.

Likidazioa jakinarazteak, edo aurretik egindakoa berresteak, hasiera emango dio Zergen Foru Arau Orokorraren 61.2 artikuluan ordainketa egiteko aurreikusita dagoen epeari, eta orduan hasiko da, baita ere, likidazioaren aurka errekurtsio edo erreklamazioa jartzeko epea, betiere epe hori etenda geratu bada perituen tasazio kontrajarriaren eskaera aurkezteagatik.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.